



**Fédération Internationale de Football
Association (FIFA)**

*Att: Gianni Infantino, Mattias Grafström,
Alejandro Domínguez, Aleksander Čeferin,
Debbie Hewitt, Lambert Maltock, Patrice
Motsepe, Sándor Csányi, Shaikh Salman
Bin Ebrahim Al Khalifa, Vittorio Montagliani*

FIFA-Strasse 20

P.O. Box 8044

Zürich, Suitza

Donostian, 2025eko apirilaren 4an

Jaun/Andre agurgarriak,

Donostia 2030eko munduko futbol txapelketaren egoitzetako bat izango dela iragarri duzuen honetan, bizilagun eta herritarrek, erabaki hori bertan behera uzteko deia egiten diogu FIFA erakundeari.

Izendapena hiriaren lorpen kolektibotzat aurkeztu nahi diguten arren, Donostiaren turistifikazioa areagotuko duen beste ekimen baten aurrean gaude. Donostiarron gehiengoari ondorio lazgarriak ekarriko dizkigu makro-ekitaldi honek: etxebizitza larrialdiaren okerragotzea, turismo jardueraren hazkundera, hiri-espazioaren merkantilizazioa, garraio-azpiegitura jasangaitzen garapena eta herritarren bizimodua baldintzatuko dute neurri sekurokratak.

Marokok, Portugalek eta Espainiak antolatuko duten edizioa, gure hiria “munduko mapan kokatzea” eta “lehen mailako kirol ikuskizuna herritarrei hurbiltzea” bezalako helburuen inguruko diskurtso hutsalez estali arren, industria turistikoa eta higiezinaren espekulazioa sustatzea helburu duen negozioa besterik ez da. Hori da, hain zuzen, Donostiaren hautaketaren atzean dagoen sakoneko arrazoia: gutxi batzuen etekin ekonomikoa.

Kirol gertakari historiko bezala kontatu nahi zaigun honek, herritarren bizitzan izango duen eragin negatiboa mahaigaineratzea inoiz baino beharrezkoagoa da, eta horregatik, erabakia atzera botatzea eskatzen dugu. Donostiak eta bertako herritarrok ezin ditugu Mundialak suposatuko dituen ondorioak jasan.

Hiria Munduko Futbol Txapelketaren egoitza bada, bertako biztanleen bizi-baldintzek okerrera egingo dute. Batetik, azken urteetan berebiziko hazkundera izan duen bisitari kopurua are gehiago haztea ekarriko du ekitaldiaren egunetan eta, honen oihartzunaren eraginez, hurrengo urteetan. Bigarrenik, turistaren harrera eta kudeaketarako azpiegitura eta baliabideak handitzea eta aktibatzea eragingo du, bai pribatuak eta bai publikoak. Eta horrek are eta zentralitate handiagoa emango dio

turismo jarduerari hiriko eredu ekonomikoan eta bizitza sozilean. Hirugarrenik, kirolaren balioetan eta ikuskizunaren marketinean bilduta, sustapen turistikorako estrategia publiko eta pribatua jarriko da martxan. Tartean, ekitaldi honen aitzakiapean, industria turistikoari baliabide, aurrekontu eta azpiegitura publiko aldetik erraztasun guztiak ematea justifikatutzat joko dute euren zerbitzura gobernatzen duten arduradun instituzionalek. Laburbilduz, hiriko baliabideak sektore turistikoaren mesedetan jarriko dira, eta argi dago horretan donostiarrek galtzaile aterako garela.

Espainiaren, Marokoren eta Portugalen hautagaitza ebaluatzeko 2024ko azaroan argitaratutako txostenean¹ aipatzen den modura, Donostian dagoen ostatu-plaza kopurua ez da nahikoa Munduko Futbol Txapelketan aurreikusten den bisitari kopururako. Horren konponbide gisa seinalatzen da Biarritz edo Baiona gertu daudela Donostiaren gainezka egitea sostengatzeko, eta Airbnb bezalako baliabideak kontuan hartu behar direla hiriaren harrera-gaitasuna ulertzeko. Gertatu baino 6 urte lehenagotik turistifikazio arazo larria duen lurraldera masifikazioa eta saturazioa ekarriko duela aurreikusten bada, ondorioa argia da: kolapsoa.

Horregatik gutun honen bitartez, sinatzen dugun Donostiako bizilagunen elkarteok 2030eko munduko futbol txapelketa Donostian ez jokatzeari eskatzen dugu. Donostian turistifikazioak herritarron eguneroko bizimoduan eragin handia izan du dagoeneko eta kalte larriak ekarri ditu. Horregatik desazkunde turistikoaren bidetik jotzea premiazkotzat jotzen dugu eta Futbol Mundiala bezalako ekitaldien antolakuntza ez da norabide horretan kokatzen.

Gaiaren inguruan sakondu edo xehetasun gehiago nahi izanez gero, harremanetarako prestutasun osoa dugu. Bizi-baldintza duinak eskainiko dituen hiria sortzeko bidean, zuen arreta eskatzen eta eskertzen dugu.

Ondo izan eta laster arte,

Sinatzaileak:

Donostiako bizilagunen elkarteak eta Desazkunde turistikoaren aldeko donostiarren plataforma: **Parte Zaharrean Bizi, Intxaurrondo Zaharreko Auzo Elkarte (IZBE), Heriz plataforma (Antigua), Egia Bizirik, Herripe Auzo Elkarte (Herrera), Uliako Auzo Elkarte, Bizilagunekin plataforma**

¹ FIFA WORLD CUP 2030™ BID EVALUATION REPORT:
<https://digitalhub.fifa.com/m/1213a790af2911ab/original/FIFA-World-Cup-2030-Bid-Evaluation-Report.pdf>